

5.6.- Ondasunen ziurtagiria

Zer da?

Udaleko erregistroetan jasotzen diren eta eskatzaileak dituen ondasunak adierazten dituen ziurtagiria. Hain zuzen ere, honako erroldetan azaltzen diren ondasunak:

- ✓ Hiri Izaerako Ondasun Higiezin Erroldan.
- ✓ Landa Izaerako Ondasun Higiezin Erroldan.
- ✓ Jarduera Ekonomikoen gaineko Lizentzia Fiskalaren Erroldan.
- ✓ Ibilgailuen Erroldan.

Normalean, doako laguntza juridikoa eskatzeko edo Udaletan dirulaguntzak eskatzeko ematen da ziurtagiri hau (Abokatuen Elkargoan edo bere udalerriko Bake Epaitegian aurkeztu behar da).

Nork eska dezake?

Interesa duen edozein pertsonak edo horren ordezkariak.

Aurkeztu beharreko agiriak

NAN.

Nola eska daiteke?

- ✓ **Aurrez aurre:** Ataria-Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (Udaletxeko beheko solairuan) astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:30ra.
- ✓ **Telefonoz:** Eska ditzakezu **943 300 830** telefonora deituz. Segurtasun arrazoiengatik, ziurtagiria eskatzaileak adierazitako helbidera igorriko da, baldin eta helbide hori **Andoaingo Udalak bere datu baseetan duenaren berdina bada**. Bestela ez da bidaliko.
- ✓ **Internet bidez:** Andoaingo Udalaren www.andoain.eus web-orriko [Zerbitzu Telematikoak](#) erabiliz ere eska daiteke.

* Zerbitzu Telematikoetara sartzeko identifikazio sistema bat beharko duzu: *sinadura digitala duen txartela (IZENPE, ONA eta NAN-e) edo Andoaingo Udalak zure esku jarriko duen Gako eta Pasahitz bidezko sistema.*

Kostua

Doan.

Izapidetzeko epea

- ✓ Unean bertan, aurrez aurre eginez gero.
- ✓ Eskaera telefonoz edo internet bidez eginez gero, 24 ordutan. Segurtasun arrazoiengatik, ziurtagiria eskatzaileak adierazitako helbidera igorriko da, baldin eta helbide hori Udalak bere datu baseetan duenaren berdina bada. Bestela ez da bidaliko.

Eskaera jaso ondoren bete beharreko prozedura

Ziurtagiria egin, espedienteen kudeaketa aplikazioa erabiliz. Eskabidea aurrez aurre eta zuzenean aurkezten ez bada, **Udal Erroldan dugun helbidera bidaliko da ziurtagiria, ez beste batera**

Beste zenbait ohar interesgarri

- ✓ Ondasunen ziurtagiria adin txikiko bati badagokio bere aitak, amak edo tutoreak eska beharko du, eta jasotzeko familia liburua aurkeztu beharko du.
- ✓ Beste pertsona batek ere jaso ahal izango du ziurtagiria. Horretarako, interesdunaren baimena eta honen NANaren fotokopia aurkeztu beharko ditu baimendutako pertsonak.

Lansail arduraduna

Udal Kontuhartzaitetza: Errentak eta Ordainarazpenak.

Informazio gehiago: 943 300 826 edo errentak@andoain.eus

5.6.- Certificado de bienes o de signos externos

¿Qué es? ¿En qué consiste?

Certificado en el que se indican los bienes que tiene el solicitante y que constan en los registros administrativos del Ayuntamiento, esto es, en los padrones de:

- ✓ Bienes Inmuebles de Naturaleza Urbana.
- ✓ Bienes Inmuebles de Naturaleza Rústica.
- ✓ Licencia Fiscal sobre Actividades Económicas.
- ✓ Padrón de Vehículos.

Normalmente este certificado se expide para la solicitud de asistencia jurídica gratuita (a presentar en el Colegio de Abogados o ante el Juzgado de su domicilio) y de ayudas económicas a los Ayuntamientos.

¿Quién lo puede solicitar?

Cualquier persona interesada o su representante.

Documentación a aportar

DNI.

¿Cómo se puede solicitar?

- ✓ **Presencialmente:** en el Servicio de Atención a la Ciudadanía-Ataria. (Casa Consistorial pta. baja) de lunes a viernes, de 8:00 a 14:30 hs.
- ✓ **Telefónicamente:** Puede solicitarlos llamando al teléfono **943 300 830**. Por razones de seguridad, el certificado será remitido a la dirección señalada por el/la solicitante, **sólo si ésta coincide con la existente en las bases de datos del Ayuntamiento.**
- ✓ **Telemáticamente:** también puede ser solicitada a través de los [Servicios Telemáticos](#) de la web municipal www.andoain.eus.

* *Para acceder a los Servicios Telemáticos es necesario un sistema de identificación: una tarjeta con firma digital (IZENPE, ONA o DNI-e) o un sistema de Clave y Contraseña que te facilitará el propio Ayuntamiento.*

Coste

Ninguno.

Plazo de tramitación

- ✓ Al momento en atención presencial.
- ✓ Si se solicita por teléfono o vía telemática, en 24 horas. Por razones de seguridad, el certificado será remitido a la dirección señalada por el/la solicitante en su solicitud, sólo si ésta coincide con la existente en las bases de datos del Ayuntamiento.

Procedimiento a seguir después de la recepción

Extender el certificado empleando la aplicación de gestión. En caso de solicitud no presencial, remitirlo por correo a **la dirección que conste en el padrón, no a otra..**

Otros aspectos de interés

- ✓ En caso de que el certificado de bienes sea referido a un menor de edad lo deberá solicitar el padre, madre o tutor, y para recogerlo deberán presentar el libro de familia.
- ✓ Puede ser retirado por persona diferente al/a la interesado/a. Para ello, se deberá adjuntar autorización y fotocopia del DNI del/de la interesado/a.

Unidad responsable

Intervención Municipal: Rentas y Exacciones.

Más información en 943 300 826 o en errentak@andoain.eus